

# GIZONA ALA EMAKUMEA? MEDIKUA



Nagore Irazustabarrena  
Uranga  
@irazustabarrena

Lurmutur Hiria (Hegoafrika), 1826. Britainiar Armadako zirujau James Barry erditze batean laguntzen ari zela, haurra kirurgia bidez ateratzea beste erremediorik ez zegoela konturatu zen. Zesarerik sekula egin gabea zen, eta aurrez soilik hiru kasu arrakastatsu irakurriak zituen (ama eta haurra bizirik atera ziren kasuak, alegia). Eta Barryk ere biak bizitzea lortu zuen. Horrenbestez, Afrikako eta Britainiar Inperio osoko lehen zesarea arrakastatsua egin zuen.


Horrez gain, higiene baldintza zorrotzagoak bultzatu zituen, gaixoen dieta hobetu zuen, eta landareetan oinarritutako sifilisaren eta gonokoziaren aurkako tratamenduak zabaldu zituen. Munduko toki askotan lan egin zuen eta ikuskari nagusi ere izendatu zuten; Britainiar Armadako bigarren medikuntza kargu garrantzitsuena lortu zuen horrela.

Lanean arduratsua eta bizkorra izanagatik, tratu zailekoa omen zen mediku irlandar ilegorria. Ezpata ia beti soinean, bizpahiru aldiz dueluan borrokatu zuen armadako ofizialen aurka, eta Florence Nightingale erizaintzaren aitzindariarekin ere tirabira gogorrak izan zituen. “Basatien moduan jokatzeko izan zuten”, idatzi zuen hari buruz Nightingalek, “armadan sekula topatu dudana

izakirik zailduena da”. Eta, hala ere, bihozbera eta atsegina zen gaixoekin. Lurmutur Hiriko zesarea arrakastatsuen ondoren, Wilhelmina Munnik amaren ondoan igaro omen zuen hurrengo egun osoa; semeari James Barry Munnik izena jarri zioten, esker onez.

1865ean hil zen, eta eskandalua jaio. Gorpua garbitzeaz arduratu zen neska-meak esan zuen hildakoa “erabateko emakumea” zela (eta, sabelaldeko azalean ikusi zizkion ildoan arabera, erditu izan zela ere bai). Berriki, Michael du Preez medikua eta Jeremy Dronfield idazlea arduratu dira James Barryren lehen urteetako nondik norakoak ikertzeaz.

Margaret Ann Bulkley –horixe zuen jaiotzean ipini zioten izena– 1790eko hamarkadan jaio zen Irlandan; du Preezek eta Dronfieldek diote Cork izan zuela jaioterri eta, beste batzuen ustez, uhartearen beste muturrean jaio zen, Belfasten. Txikitan John anaiari esan omen zion: “Emakumea ez banintz, soldadua izango nintzateke”. Eta aurrerago bokazioa medikuntzara aldatu zitzaion, baina horretarako ere emakumea ez izatea derrigorrezko eskakizuna zen. Alaba bat izan omen zuen, Juliana Bulkley, neskameak gorpuan ikusitako ildoak azalduko lituzkeena. James Barry artista (1741-1806) osaba omen zuen. Margo-



James Barry doktorea, John zerbitzariarekin eta Psyche txakurrarekin, Jamaikan, 1862. urte inguruan.

laria hil eta urte gutxira, 1809an, haren izena, dirua eta generoa erabili zituen Edinburgoko Unibertsitatean medikuntza ikasketak egiteko. 45 ikasletik bigarrena izan zen, eta hernia femoralari –nagusiki emakumei eragiten dien arazoari– buruzko tesia osatu ondoren graduatu zen.

Margareten –edo Jamesen– hautua bokazioak ala genero identitateak bultzatu izan zuten eztabaidatu izan da, baina Michael du Preezen iritzian, eztabaida horrek medikuak egindako ekarpenak itzali ditu. Behin, Barryren heriotza ziurtagiria sinatu zuen D. R. McKinnon maiorrari haren generoari buruz galdetu zioten. “Ez dakit gizona, emakumea ala hermafrodita zen (...) dakidana da gorpua urte luzez ezagutu nuen ospitaleetako ikuskari nagusiarena zela”. ■



TUNISIAKO ONDAREAREN INSTITUTUA / SASSARIKO UNIBERTSITATEA

## Tsunamiak urperatutako *garum*-a

Tunisiar eta italiar arkeologo talde batek Neapolis hiriarren arrastoak aurkitu berri ditu Tunisiako kostaldean urperatuta. Amiano Martzelino erromatar historialariak jaso zuenez, hiria tsunami batek suntsitu zuen K.o. IV. mendean.

Hogei hektareatik gorako aztarnategian, hainbat monumentu eta eraikinen arrastoak topatzeaz gain, *garu*-

*ma* (arrain hartzituzko saltsa) egiteko ehunka tanga aurkitu dituzte. Adituen ustez, Erromatar Inperio berantiarreko *garum* ekoizle nagusietakoa zen Neapolis, baina erromatarrek oso gutxi idatzi zuten hiriarri buruz, ziurrenik Gerra Punikoetan Kartagorekin lerratuta izanagatik. Aurkikuntzak erromatarrek esan ez zigutena jakiteko balio dezake. ■